

Manuel Irujo Olo (1891-1981): Jardunaldien aurkezpena

Duela 110 urte, 1891.IX.25ean, jaio zen Lizarran Manuel Irujo eta Iruñan hil orain dela hogeitau urte, 1981.I.1ean. Hirurogeitabost urte bete dira 1936.IX.25ean Errepublikako Gobernuako Gobernuko ministrari izendatua izan zenetik.

Pertsonai honen inguruan eta Eusko-Ikaskuntzako Geografia eta Historia Sailaren aginduz antolatu ditugu Jardunaldi hauek 2001.IX.20 eta 21 egunetarako Manuel Irujo berari buruzko Erakusketarekin batera.

Datez gain arrazoi anitz dago tamaina honetako pertsonalitate historiko bat ikertzeko. Iñaki Bazanek, Saileko lehendakariak hain zuzen, adierazi duenez argi ikus daiteke Irujok Eusko Ikaskuntzarekin edukitako harreman estua Gerraurreko urteetan eta baita Transizio urteetan ere.

Eusko Ikaskuntzak, zeinek katalogatu eta gordetzen duen Irujoren Artxibategi historiko aberatsa, interes bereziarekin antolatu du bere bazkide eta zuzendari ohiaren aldeko omenaldi hau, 1981ean bere heriotzarekin batera Iruñan antolatutakoari jarraiki. Gaur, hogeitau urte geroago, Irujoren paper historikoa aztertzeo ikuspuntu zabalago bat badugu eta, besteak beste, bere bizitzari eta garaiari buruzko ikerketa ugari dago bai Irujoren bizitza zuzenean edota euskal nazionalismoa eta XX garren mendeko Euskal Herriko historiari buruzko hainbat ikerketa egin direlako azken urteotan.

Kultur gizona izan zen Irujo, liburu eta egunkari edota aldizkari ezberdinetako ehundaka artikuluen idazle. Halaber, abokatu eta Euskal Zuzenbidearen historiagile. *Doctor honoris causa* izendatu zuen 1980an Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateak. Horregatik bereziki egoki deritzogu Ihardunaldi hauek eta baita Erakusketa ere Miramar Jauregian ospatzea hau baita Eusko Ikaskuntzaren eta Udako Unibertsitatearen egoitza.

Joan berri zaigun mendeko politikari aparta bezala da Irujo gogoratua gaur egun. Euskal Herriko eta Nafarroako aniztasun politiko zabala osatzen duten sektoreen artean azpimarra genitzazke Víctor Pradera eta Rodezno kontea karlistak, José Félix Lequerica eta José María Areilza monarkikoak, José Antonio Agirre eta Manuel Irujo nazionalistak eta Indalecio Prieto eta Julián Zugazagoitia sozialistak, besteak beste.

Gure ustetan Agirre Lehendakariaren ondoren, Irujo izan da XXgarren mendeko euskal nazionalismoarentzat politikari garrantzitsu eta eraginkorra.

Hona hemen bere ibilbide politiko zabala: Berrezarkuntza garaian (1921-23 eta 1930-31) diputatu forala Nafarroan Lizarrako barruti aldetik; II Errepublikan EAJko Gipuzkoako eskualdeko diputatua Gorteetan (1933-35 eta 1936-39); Gerrate Zibilean Azpeitiako Defentsa Batzarraren lehendakari (1936) eta Justizia ministraria Largo Caballeroren eta Negrinen gobernu errepublikarretan (1936-38); Gerrate Mundialean Euzkadiko Batzar Nagusiko lehendakaria (1940-42) eta baita ere Eusko Jaurlaritzarena Britania Handian (1942-45); Frankismo garaian, atzerrian, Frantzian, Giral eta Llopisen gobernu errepubliketarretan Nabigazio, Industria eta Merkataritza eta Justizia ministraria (1945-47); euskal talde parlamentarioaren lehendakaria atzerriko Gorte errepubliketarretan; Europear Mugimenduko espainol Kontseilu Federaleko lehendakaria eta lehendakariordea (1949-73 eta 1973-76); 1951ean sortutako Europear Mugimenduko Euskal Kontseiluaren batzarkide; Transizio Demokratikoan berriz Nafarroako Fronte Autonomikoko senatore Gorteetan (1977-78); Euskal Parlamentarioen Biltzarreko lehendakaria (1977-78) eta Nafarroako foru biltzarkidea Iruñatik (1979-80).

Manuel Irujoren hain bizitza politikoa zabala eta anitza bai euskal, espainol eta europear mailetan, arestian aipatutako beste politikoarenarekin konparazina da. Bere ibilbide politikoak honako ezaugarri hauek erakutsi dizkigu: abertzaletasuna estuki lotuta bere sorterriarekin, Nafarroarekin; II Errepublikan eta baita Transizioan ere Euzkadiko Autonomi Estatutuen erabateko babeslea; katoliko sutsua arazo sozialetaz arduratua, gerra gizartartzearen eta Gerrate Zibilaren garaian Errepublikaldean kultura berrezartzearen aldeakoa; benetazko demokrata eta errepublikar federala, Demokrazia Errepublikarekin batzen zuena; antifaxista eta antifrankista izateagatik lau hamarkada luzeetan atzerrian bizitzera behartua izan zena; halaber, kristau demokrata eta europazalea “Europako Laguna” izendatua izan zena.

Manuel Irujoren bizitza luze eta sakonaren ikuspegi eta aldi hauek guztiak izan dira azertuak Historiako Ihardunaldi hauetan. Hamar doktoreen eta historiagileen txostenak argitara ematen dira jarraian. Horiekin batera Arantzazu Amezaga idazlearen eta bibliotekariaren amaierako hitzaldia. Baldintza bikoitza betetzen baitu Arantza Amezagak, Manuel Irujoren senide eta biografia izatea alegia.

Vasconia ale honen osagarria da Erakusketaren dokumentu eta argazkien bilduma. Ascensión Martínez, Historian doktorea eta Irujoren kronologiaren eta bibliografiaren egilea, izan da Erakusketa honen arduradun nagusia.

José Luis de la Granja eta Juan Carlos Jiménez de Aberasturi
Jardunaldien Koordinatzaileak

Manuel Irujo Olo (1891-1981): Presentación de las Jornadas

Por encargo de la Sección de Historia-Geografía de la Sociedad de Estudios Vascos/Eusko Ikaskuntza, nos hemos ocupado de organizar estas Jornadas sobre la figura de Manuel Irujo cuando se han cumplido 110 años de su nacimiento en Estella (25-IX-1891) y veinte de su fallecimiento en Pamplona (1-I-1981), así como 65 años de su nombramiento como ministro del Gobierno republicano en la Guerra Civil (25-IX-1936). Hemos preparado estas Jornadas en coordinación con la Exposición sobre Manuel Irujo, inaugurada al mismo tiempo que ellas en Donostia-San Sebastián (20 y 21-IX-2001).

Además de esas efemérides, hay muchos motivos para recordar una personalidad histórica como fue Manuel Irujo. El presidente de la Sección, Iñaki Bazán, ha mencionado su estrecha vinculación con la Sociedad de Estudios Vascos, tanto en los años de la preguerra como en la Transición. De ahí el interés de Eusko Ikaskuntza, que custodia y ha catalogado su rico Archivo histórico, en organizar este homenaje a su antiguo socio y directivo, que tuvo un precedente en Pamplona en 1981 con ocasión de su muerte. Ahora, veinte años después, contamos con más perspectiva histórica para analizar qué representó Irujo y, sobre todo, disponemos de muchos más estudios historiográficos acerca de su vida, su obra y su tiempo, para hacer un balance de todo ello por parte de destacados historiadores especialistas en la biografía de Irujo, en la historia del nacionalismo vasco y en la historia de la Vasconia del siglo XX.

Manuel Irujo fue un hombre de cultura, autor de varios libros y de cientos de artículos en periódicos y revistas, así como un historiador del Derecho vasco y un jurista, que ejerció la abogacía. Por ello, resulta adecuado celebrar estas Jornadas y hacer la Exposición en el Palacio de Miramar, sede tanto de Eusko Ikaskuntza como de los Cursos de Verano de la Universidad del País Vasco, Universidad que le invistió *Doctor honoris causa* por su Facultad de Derecho en 1980.

Además de todo esto, Manuel Irujo es recordado especialmente por haber sido un gran político vasco a lo largo del siglo recién concluido. Teniendo en cuenta los grandes sectores componentes del pluralismo político vasco-navarro, cabe destacar las figuras de los carlistas Víctor Pradera y el conde de Rodezno, los monárquicos José Félix de Lequerica y José María

de Areilza, los nacionalistas José Antonio de Aguirre y Manuel de Irujo, y los socialistas Indalecio Prieto y Julián Zugazagoitia.

A nuestro juicio, tras el *lehendakari* Aguirre, Irujo ha sido el político más relevante e influyente del nacionalismo vasco en el siglo XX, centuria que ha abarcado en sus tres cuartas partes, según prueban la importancia y la variedad de sus cargos públicos, a saber: en la Monarquía de la Restauración, fue diputado foral de Navarra por el distrito de Estella (1921-23 y 1930-31); en la II República, diputado del PNV a Cortes por la circunscripción de Guipúzcoa (1933-35 y 1936-39); en la Guerra Civil, presidente de la Junta de Defensa de Azpeitia (1936), ministro sin cartera y de Justicia en los Gobiernos republicanos de Largo Caballero y de Negrín (1936-38); en la II Guerra Mundial, presidente del Consejo Nacional de Euzkadi en Londres (1940-42) y de la Delegación del Gobierno vasco en Gran Bretaña (1942-45); en el exilio en Francia durante el franquismo, ministro de Navegación, Industria y Comercio y de Justicia en los Gobiernos republicanos de Giral y de Llopis (1945-47), presidente del grupo parlamentario vasco en las Cortes republicanas del exilio, vicepresidente y presidente del Consejo Federal Español del Movimiento Europeo (1949-73 y 1973-76), vocal de la junta directiva del Consejo Vasco del Movimiento Europeo creado en 1951; y en la Transición democrática, senador del Frente Autonómico por Navarra en las Cortes (1977-78), presidente de la Asamblea de Parlamentarios Vascos (1977-78) y parlamentario foral de Navarra por Pamplona (1979-80).

Ninguno de los destacados políticos mencionados tuvo una vida política tan dilatada y con cargos públicos tan diversos a nivel vasco, español y europeo como Manuel Irujo. Su trayectoria política se caracterizó por ser: un nacionalista vasco estrechamente unido a su tierra natal, Navarra; un decidido defensor de los Estatutos de autonomía para Euzkadi en la II República y en la Transición; un ferviente católico preocupado por la cuestión social, así como por humanizar la guerra y restablecer el culto en la zona republicana durante la Guerra Civil; un demócrata convencido y republicano federal, que identificaba la democracia con la República; un antifascista y antifranquista, que por ello vivió exiliado cerca de cuatro decenios; un demócrata cristiano y europeísta, que fue nombrado “Amigo de Europa”.

Todas estas etapas y facetas de la larga y fecunda vida de Manuel Irujo fueron analizadas durante dichas Jornadas de Historia por diez doctores e historiadores, cuyas ponencias se publican a continuación, junto con el discurso de clausura de la escritora y bibliotecaria Arantzazu Amezaga en su doble condición de pariente y biógrafa de Manuel Irujo. Este número de *Vasconia* se completa con una selección de documentos y fotografías de la Exposición a cargo de su comisaria, Ascensión Martínez, doctora en Historia y autora también de la cronología y la bibliografía de y sobre Irujo.

José Luis de la Granja y Juan Carlos Jiménez de Aberasturi
Coordinadores de las Jornadas